

ELKARBIDEAN PROGRAMA

elkartuk (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua laguntzailea duela, bidaia desberdinak antolatu ditu 2017. urterako.

Bidaia hauek pentsatuak izan dira bereziki desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoriala izanik, OPOR BATZUEZ GOZATU EZINGO LUKETENENTZAT.

IZENA NORTZUK EMAN DEZAKETE?

16 urte edo gehiago eta desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoriala dutenek. Eskatzaileek, oporrak behar bezala gozatzeko, ezin dute gaixotasun larriarik edo osasun zerbitzu berezien beharrik izan. Ezta bere buruko arazoengatik, taldeko eta inguruko elkar bizitze giroa aldatu dezaketeneke ere.

Desgaitasun handiagoa jasaten duten eta mugikortasun arazo larriagoak edota behar bereziko egoerak-adibidez, diru sarrera eskasak, e.a.- dituztenek lehentasuna edukiko dute.

Oinarritzko beharrak betetzeko beste pertsona baten laguntza behar duten eskatzaileek, zerbitzu hori egiteko gai den beste pertsona baten izena eman beharko dute. Beharrezko laguntzaile honek, bidaia eskaintzen den prezio taularen arabera ordaindu beharko du. Beharrezkoa ez den laguntzailearen bat eramanez gero, honek bidaiaren kostu osoa ordainduko du.

ONDORENGOA BARNE

- Calpe, Salou eta Marina D'Oreko joan-etorriak egokitutako autobusean egingo dira, bazkaria barne.
- Municheko (Alemania) bidaia hegazkinez Bilbotik egingo da. Donostiatik Bilbora eta Aireportutik Hotelerako joan etorriak egokitutako autobusean egingo dira.
- Ibilaldia egokitutako autobusean Calpe, Salou eta Marina D'Oreko txandetan. Autobus egokitua eta gaztelera-hizkuntza gidarekin bisitaldi programa zabala Municheko (Alemania) txandan.
- Hoteletako egonaldia "gela bikoitzean". Gela bakarra nahi duenak dagokion gehigarria ordaindu beharko du. Egonaldia "PENTSIO OSOKOA" izango da bidaia guztietan, Municheko (Alemania) bidaiaren izan ezik, bertan hiru egun pentsio osoan izango bait dira, eta besteak pentsio erdian.
- Bidai aseguru.

Gela bakarraren prezioa edo edozein argibide nahi izanez gero, **elkartura** jo dezakezu.

TALDEAK

1 **CALPE**

Diamante Beach Hotela
ALICANTE

EKAINAK 3TIK 17RA

2 **SALOU**

Salauris Hotela
TARRAGONA

UZTAILAK 1ETIK 15ERA

3 **MUNICH**

Ibis Muenchen City Hotela
ALEMANIA

UZTAILAK 30ETIK ABUZTUAK 6RA

4 **SALOU**

Salauris Hotela
TARRAGONA

ABUZTUAK 12TIK 26ERA

5 **MARINA D'OR**

Gran Duque Hotela
OROPESA DEL MAR, CASTELLÓN

IRAILAK 24TIK URRIAK 8RA

Irisgarritasun baldintzak: Txanda desberdinetako hotelak irisgarriak dira (ez egokituak). Ezin da bermatu egokitutako gelak esleitzea.

Eskabideak, izena emateko orrietan eskatzen diren datu guztiekin, ahal izanez gero apirilaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetara:

elkartu

(Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa
duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea)

Ondarreta pasealekua, 5 behea
20018 Donostia - San Sebastián
tel.: 943 31 67 70
fax: 943 31 63 79
elkartu@elkartu.org

Izen-ematea elkarturen web orriaren
bidez egin ahal izango da ere

www.elkartu.org

OHARRA: Prezioak, diru-sarreraren arabera, alboko orrialdean dituzunak dira, bai eskatzaileentzat eta beharrezko laguntzaileentzat ere.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales
Gizarte Politikako Departamentua

www.elkartu.org

ELKARBIDEAN PROGRAMA

2017

>>>

elkartu

>>> Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa
Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea